

b
barren

Oporretan bakean

Yunes Lehbide Becher eta Abdu Mohamed Ahmed



Osasun gida.....



RPS233/13

943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku eder

hortz klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

RPS 271/12

ainhoa

fizio terapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

fisio&mas

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com

RPS 177/19

NATUR HOUSE

Ainara Iriondo Ansola

GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

ETXE BERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA



943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitako enantzikizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Eurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Lere Kerexeta, Nagore Cancio, Saioa Rodriguez **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



x.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet



mastodon.us/@barren@tkm.eus

Ane Kortaberria

Komunikazioan eta Zuzenbidean Graduatua

Eta zuk, nolako harremana duzu kirolarekin?



"Amorrua ematen dit jendeak kirola egiteari laga izana, epaituak sentitu direlako"

Kirolean txarra naiz', 'ez zait kirola gustatzen', 'baloidun kirola bada, ez dut jolastu nahi', 'talde-kiroletan ez naiz ona', etab, etab. Zenbat aldiz entzun dituzu esaldi horiek? Nik, askotan, eta beti eman dit amorrua edo pena, nire ustez, ez zelako horrela izan beharko.

Amorrua ematen dit jendeak kirola egiteari laga izana, epaituak sentitu direlako. Kirola gustuko ez dutela esateak, esperientzia txarrak izan dituztelako. Entrenatzaile edo figura erreferente desegokiak izateagatik, kirola hitza negatiboki hartzeak.

Nire kasuan, beti gustatu izan zait kirola egitea, baina egia da esperientzia txarrak ere izan ditudala. Horren eraginez, kirola egiteari laga nion denboraldi baten eta, ondorioz, oso desmotibatuta, neke emozional konstate baten, makalduta... sentitzen hasi nintzen.

Izan ere, konturatu nintzen 'kirol falta' sentitzeak zentzua zuela, kirola gauza askotarako delako ona: dibertitzeko, barruko energia askatzeko, gure buruarekin ondo sentitzeko, norberaren habileziak lantzeko eta berriak ikasteko, lagunak egiteko, talde-lanaz ikasteko, integrazioarako...

Horregatik, beti amestu dut lagun-giroan sortutako kirol-taldea sortzearekin, kirol desberdinak probatu eta jende desberdina nahastearekin. Eta hara non, hori bera egin dugu orain bizi naizen Bajamar herrian sortu dugun hondartza-volley taldearekin eta izugarri poztu nau honek. Baloia edo talde-kirolak hasiera batean gustuko ez zuten lagunak motibazio handiarekin hasi dira jolasten, kanpotarrak direnak herrian integratzen hasi dira eta lagun-talde berria osatzen hasi gara!

Beraz, argi dago talde-giro ona sortzea dela "gakoa" eta "derrigortuta" ez sentitzea. Gorputzak eskatzen digunari kasu gehiago egingo bagenio...

4 GUTUNAK

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak atalean adierazitako enantzikun. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Eskerrik asko

Mezu honen bidez, eta Arno guraso elkartearen izenean, gure eskerrik beroena larunbatean santa eskean makilekin lurra astintzen ibili zirenen guztioi, eta baita antolakuntzan ibili zen lantaldeari, baserri zein etxeetan goxo-goxo hartu gintuztenei eta santa eskea argazki eta bideoan jaso zituen BARREneko kazetariari; eskerrik asko, Ainara.

Egun ederra pasatu genuen, kantu, bertso eta trikiti giroan.

Batu genuen dirua Arno guraso elkartearentzat izan zen, horrexegatik eskertza hau zuentzako da.

Argi izan jasotako diru guzti hau gure herri-gintzara bideratuko dugula.

Biba zuek!

Arno guraso elkarte

Ruso Zezenak eta sokamuturra

Elgoibarko baserritarrak, abeltzainak eta artisauak batu dituzte Tokiko Ekoizleen Gidan. Titular polita! Udalaren hitzetan, "euren lana balioan jarri, egiten duten ahaleginaren inguruko biodibertsitatea, kultura eta tradizioak babesten dituzte, herriko ehun ekonomiko eta soziala indartu...".

Gogoan dut asko gustatu zitzaizkizala eta guztiz bat natorrela BARREnean argitaratu zuten artikuluarekin eta Udalaren diskurtsoarekin, baina zeharo atsekabetu eta dezepzionatu nau aurreko astean sokamuturrari buruz argitaratutakoak. Lehendik ere sokamuturrak zein ganadutegiri emango dizkion erabakitzeke Udalak egiten duen zozketa ez da ohikoa. Eta aurtengorako hiru sokamuturretatik bat Sakari ziurtatu badio, bi soilik geratzen dira zozketarako. (Besarkada eta animo jatorrena Sakakoentzat!).

Elgoibarren urte asko dira Ruso ganadutegia dugula, Jabik berak sortutakoa! Urte asko dira Elgoibarren sokamutur bat eskatzen hasi zela, eta ibilbide luze baten ostean, 2023an eman zio-

ten lehen aukera. Ikaragarri poztu nintzen Ruso Zezenak Elgoibarko jaietako egitarauan azaltzen zela ikusi nuenean, eta ilusio handiz jaisi nintzen sokamutur hartara. Bi urtetan Rusok erakutsi du, eta Udalak badaki, Elgoibarko sokamuturrerako maila eta ahala baduela. Beraz, gure herriko ganadutegi bakarra izaki, eta gure herriko base-rritar eta abeltzaina izaki, kultura eta tradizioak babesten ditu eta abar, eta abar... Rusoren lanari balioa eman eta sokamutur bat gutxienez ziurtatua eduki beharko luke.

E.O.A.

Trikitia edo panderoa jo(tzen) duten emakumeen bila gabiltza!

Emakumea bazara, Elgoibarko izan edo bertan bizi bazara, trikitia edo panderoa ikasten jardundakoa bazara, bietako bat jotzen baduzu, eta feminismoa eta euskal kultura uztartuko dituen ekimen batean parte hartu nahi baduzu, jarri harremanetan gurekin.

Martxoaren 11n izango da hitzordua Kalegoen plazan, arratsaldeko 18:30ean, eta trikitia eta panderoa jotzen duten herriko emakumeekin kalejira egingo dugu Kalegoen plazatik Herriko Antzokira. Herriko Antzokian, berriz, Gure Mauriziak! jaia izango dugu.

Ekimen honetan parte hartu nahi baduzu, deitu edo idatzi martxoaren 7a baino lehen: elgoibarmusika@gmail.com eta 628 929 055

**Antolatzaileak: Elgoibarko Udala,
Inazio Bereziartua Musika Eskola,
Elgoibarko Izarra, Ongarri zine-kluba eta
Badihardugu elkarte**

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 655 658



Pibote metalikoek autoa hondatzen

dute: "Herriko hainbat gunetan autoek ez aparkatzeko pibote metalikoak daude, eta autoaren arabera, askotan pibote horiek ez dira ikusten ispilutik. Kolpea emanez gero, piboteak oso gogorrek dira, eta autoari kalte handia egiteko arriskua dago. Plastikozko pibote bigunagoak jarri daitezkeela iruditzen zait. Funtzioa berdin-berdin beteko luke, eta kolpea emanez gero, autoari ez lioke horrenbesteko kalterik eragingo".



Herrigunean obretan ari diren bitartean, aparkalekuak moldatu egin beharko lirateke:

"King-Kong zubiaren obra dela-eta, Urazandin aparkalekuak kendu dituzte; Bernardo Ezenarro kalean ere hilabeteak daramatzate obretan eta han ere kendu dituzte hain-

bat aparkaleku, kiroldegiko teilatua konpontzeko lanengatik ere bai... Hainbat obrak bat egin dute azkenaldian, eta herrian aparkatzea ezinezkoa da. Horrelako egoeretan salbuespenak egin beharko lirateke, eta Aita Agirre plazan TAO sistema kendu, jendeak errazago aparkatu ahal izateko".



Sokamuturrak eragiten duen kostua Udalak beregain hartuko al du?:

"Aurreko astean jakin genuen sanbar-tolomeetan ez ezik, aurtengo Trinitate jaietan ere sokamuturra egongo dela Elgoibarren. Orain arte, sokamuturra dagoen bakoitzean, merkatariorik eta portaletakook gure gain hartu izan dugu gure lokalak estaltzeko ardura, bai dendora aldetik eta baita kostu aldetik ere. Legez, ordea, ardura hori Udalarena da. Sokamuturra dagoenean, ibilbidean dauden lokal eta pertsonen segurtasuna bermatu behar du. Hori horrela izanik, Udalak kostu horiek bere gain hartzeko asmorik duen jakin nahiko nuke, eta baita zeintzuk diren hartuko dituen neurriak ere, izan ere, lokala dugunok oso kaltetuak sentitzen gara". BARRENEK Udalera jo du, eta Maialen Gurrutxaga alkateak ondorengo erantzun du: "Sokamuturraren kostuak beti ordaintzen ditu Udalak: ganadutegia, aseguruak, pertsonala, hesiak, albaitaria... Udalak jartzen dituen hesiekin pertsonen segurtasuna bermatzen du. Sokamuturraren egunean, Udalak hesiez apar-



te, udaltzainak eta langileak kontratatzen ditu, eta Udalak sokamuturra aurrera eraman ahal izateko Larrialdi plana eginga du, hortaz, hesiekin eta kontratatutako langile eta udaltzainen laguntzaz, plan hori betetzen da. Legeak dioen bezala, Udalak aseguruak kontratatzen du, edozein ezbehar gertatuko balitz, aurre egiteko. Dendak, portalak, eskaparateak... ez ditu instalatzen Udalak. Zezenak horrelako elementuren bat apurtuko balu, Udalaren aseguruak bere gain hartuko luke".

Martxan da Gym Berdea, naturarekin harremantzeko eta zahartze aktiboa sustatzeko ekimena



Gym Berdea jarri du martxan Mendaroko Udalak, osasuna, zahartze aktiboa eta trantsizio ekologikoa sustatzeko ekimena. Proiektuak hainbat erakunderen laguntza jasotzen du, tartean Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailarena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren Zuzendariordetzarena, eta mankomunitate batzuen, eta osasun integrala sustatzea dauka helburu, horretarako herriko baratze eta basoetan lan eginez. "Osasuna sustatzeko eta ingurumen-krisiari aurre egiteko gero eta behar handiagoa dagoen testuinguruan sortu da Gym Berdea, pertsonen eta komunitatearen ongizatea hobetzeko aukera osasungarri eta iraunkor bat eskainiz", diote ekimenaren sustatzaileek.

16 eta 85 urte bitarteko pertsonen dago zuzenduta Gym Berdea, bereziki 60 urtez gorako pertsonen, adineko pertsonen beren autonomia eta zahartze aktiboa sustatzea bilatzen duelako, baina aldi berean, lagungarria da gizartean baztertzeko arriskuan daudentzat eta beren bizitza hobetzeko edo harremanak sendotzeko interesa duen edozeinentzat. Kanpoan aritzen dira parte-hartzaileak lanean, lorategie-

tan eta herriko basoetan, eta modu horretan ingurunea edertzeko eta trantsizio ekologikoa sustatzeko aukera dute, flora eta fauna autoktonoak babestuz eta espazio berdeetan produktu kimikoak erabiltzea saihestuz. Mendaron, hamabi bat lagunek eman dute izena ekimenean, eta martitzenean hasi ziren lanean. Hasteko, ikastola gaineko parkean, mugurdi edo masusta-gorri landarak sartu zituzten, eta Trinitate gaineko arbolak inusten ere jardun ziren. Lanean hasterako, baina, egin beharrekoen azalpen teoriko bat jaso zuten, eta behin eguneko lanak bukatuta, luzaketa ariketak ere egin zituzten.

Taldera batu direnek balorazio positiboa egin dute lehen egunaz eta eremu berdean elkarrekin lan egiteak ematen dizkien onura fisiko, emozional eta sozialak nabarmendu dituzte. Era berean, Gym Berdeak belaunaldiartekotasuna indartzeko, kultura trukerako eta lan komunitarioa sustatzeko balio dutela ere azpimarratu dute. Taldekideak martitzenetan elkartzeko dira lanerako. 16:15ean batzen dira plazan eta 18:45ak aldera arte jarduten dira egun horretarako zehaztutako eginkizunean.

Emakume trikitilari eta panderojoleen bila ari dira Elgoibarren

Herriko hainbat elkarte Elgoibarren jaio edo bizi diren emakume trikiti-jole eta pandero-jole bila ari dira, martxoaren 8aren bueltan egin nahi duten ekimen kultural eta feminista batean parte hartzeko. Elgoibartarra eta panderoa edo trikitia ikasi duten edo ikasten ari direnak behar dituzte. Interesatuak martxoaren 7ra arteko epea dute izena emateko, elgoibarmusika@gmail.com helbidera idatzita edo 628 929 055 (Imanol) telefonora deituta. Martxoaren 11n izango da ekitaldia, 18:30etik aurrera. Kalegoen plazatik hasita, kalejira egingo dute herrian zehar, eta gero omenaldia izango dute Herriko Antzokian.



Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarren


Elgoibarko Odol Emailek elkartetik jakinarazi dute gaur egingo dituztela hilabete honetako odol ateratzeak. Jubilatuen Biltokian izango da, 16:30etik

aurrera. Arduradunek txanda hartzeko eskatu dute gotatanta.eus webgunearen bitartez, edo 623 328 408 zenbakira whatsapp mezua bidalita.



Zuhaitz landaketa parte hartzeko deia egin dute Mendaron domekarako


Domekan, otsailaren 16an, egingo duten zuhaitz landaketa parte hartzeko deia egin dute Mendaroko Udalak eta Arno guraso elkarteak. 10:00etan elkartuko dira Herriko Enparantzan, eta oinez joango dira handik, Plaza auzorantz, Intsusadiko Goikolan landatuko dituztelako aurten ere arbolak. Antolatzailak jakinarazi dute, bukaeran, hamaitakoa emango dutela han bertan.



LAGUNAK
colchonería textil hogar

San Roke kalea, 20
Elgoibar

TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,
TEMPUR FORM
KOLTXOI BAT EROSTEAGATIK.
(IKUSI BALDINTZAK)*



TEMPUR

TEMPUR FORM KOLTXOIA

*TEMPUR Original burkora bat erosteko 200€-ko prezioa (190€en ordez). TEMPUR Form koltxoia erosteko gaita 100€-ko prezioa (70€-ko ordez). TEMPUR Form koltxoia erosteko, 200€-ko prezioa erosteko aurrera arte bako zu erosteko txan.

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Martxoak 8aren bueltako egitaraua aurkeztu dute

Elgoibarko Emakume* Feministen Asanbladak (EFA) Martxoaren 8rako hainbat ekintza antolatu ditu. Emakume* feministak batu eta asanblada indartzea dute helburu, eta era berean, kalera eraman nahi dute emakumeen* aldarria.

Martxoaren 7an hasiko dituzte ekitaldiak, 19:00etan egingo duten triki-poteo-berriketaldiarekin. Maalan batuko dira, eta herrian zehar ibiliko dira. Segidan, emakume* feministen afaria egingo dute Kultur Kafean, 12 euroan, eta nahi duen orok hartu ahalko du parte. Horretarako baina, izena eman beharko da Kultur Kafean bertan, Pitxintxun edo online zabaldu duten formularioa beteta (*barren.eus* webguneko albistean aurkituko duzue formularioa betetzeko lotura).

Martxoaren 8rako, bestalde, mendi irteera bat egiteko asmoa dutela aurreratu dute. 09:00etan bilduko dira Meka aurrean, eta egurdiaren arabera erabakiko dute ibilbidea.



Eguerdian, denak batuko dira Kalegoen plazan, eta 13:15ean manifestazioa egingo dute. Asanbladatik herritarrei dei egin diete antolatutako ekintzetan parte hartzera.

Zabalik dago erorketak sahiesteko tailerrean izena emateko epea

Osakidetzak, Elgoibarko Jubilatuen Biltokiak eta Elgoibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuek Erorketak Saihesteko Tailerra antolatu dute. Otsailaren 26an eta 27an egingo dute tailerra, eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea. Tailerrean parte hartzea doan izango da eta bi saioak Elgoibarko Jubilatuen Biltokian izango dira. Interesatuak telefono hauetara deitu dezakete izena emateko: 943 032 610 (astelehen eta ostiraletan, 11:00etatik 12:00etara) edo 943 740 526.

Tailerra 65 urtetik gorako pertsonentzat prestatu dute, eta helburua da erorketen arrisku faktoreei buruz informazioa ematea, horiek prebenitzeko estrategiak eskaintzea eta horien aurrean nola jokatu irakastea. Osasunerako Mundu Erakundeak emandako datuen arabera, heriotza eragiten duten arrazoen artean bigarren kausa dira erorketak

eta erorketen %50, gainera, etxean gertatzen dira. OMEren datuen arabera, 65 urtetik gorako biztanleen %30 erortzen dira urtean.

Erizaintzako, fisioterapiako, telelaguntza zerbitzuko eta Elgoibarko gizarte-zerbitzuetako profesionalak emango dute tailerra, ordu eta erdiko bi saiotan banatuta. Lehen saioan erorketetan eragina duten faktoreak landuko dituzte, Osakidetzako profesionalen eskutik, eta muskuluak indartzeko ariketak nola egin azalduko ditu Eibarko Ospitaleko fisioterapeuta batek. Bigarren saioan, berriz, adinekoentzako dauden gizarte baliabideen berri emango dute Elgoibarko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako lagunek eta telelaguntzari buruzko informazioa emango du BetiOn zerbitzuko kide batek. Saio berean, ortopediako laguntza materialaz jardungo da Itziar Sarasketa ortopediako arduraduna.

Hemen bertoko 350 zuhaitz landatu dituzte asteburuan Elgoibarko Baso Biziak taldekoek



Elgoibarko Baso Biziak taldekoek urteko lehenengo zuhaitz landaketa egin zuten joan zen domekan. Karakateko Landa Parkean egin zuten landaketa, Karakate eta Atxolin arteko magalean, lurjabeekin akordio bidez lortutako lurretan. Bertoko hogeitasei espezieetako 350 zuhaitz landatu zituzten. Baso Biziak taldekoek eskerrak eman dizkiete ekimenean parte hartu zutenei, lurjabeari eta baita BESA, Alcorta, Rural Kutxa eta Bellota enpresei ere.

Iaz sei landaketa saio antolatu zituen Elgoibarko Baso Biziak elkarteak, denak Muzkiritzu mendilerroan, Karakateko Landa Parkearen barruan lurjabeek laga dizkieten lurretan. Guztira, 2.935 zuhaixka autoktono landatu zituzten, bazkideen eta boluntarioen laguntzarekin. 2022ko ekainean elkartea sortu zutenetik hemen bertoko espezieetako 5.110 zuhaixka landatuak dituztela jakinarazi dute.

Aurtengorako ere lursail hektarea berriak lortu dituzte: "Alde batetik, zortzi lurjaberekin adostu ditugun akordioei esker, 42,3 hekta-

rea kudeatuko ditugu, hemeretzi lur sailetan banatuta". Lurjabeekin adostutako lagapenez harago, beste urrats bat eman, eta lursailak erosi ditu elkarteak. Lorpen handia dela azpimarratu dute eta bazkideen ekarpenekin egin ahal izan dutela. Atxolinen magalean erosi dituzte lurrak, 7,5 hektareako hiru lursail hain justu ere. Bereziki pagadiz osatutako lursailak direla zehaztu dute eta baso autoktono hori lursail osora zabaldu nahi dute. Aurten egin asmo dituzten landaketa saioetan, guztira, 49,8 hektarea kudeatzeko asmoa dute. Babesleen artean hauek dituzte: Elgoibarko Udala, Rural Kutxa, Alcorta Forging Group, Bernardo Ecnarro, DanobatGroup, Bellota enpresa eta Lurguia elkartea.

Dibulgazio eta kontzientziazio ekitaldietan ere hartzen du parte Baso Biziak Taldeak, eta besteak beste, *Gure natura ezagutzen* egitasmoko sustaileetako bat da, Morkaiko eta Atxutxiamaikarekin batera. Nahi duenak elkarteko bazkide izateko aukera dauka info@elgoibarkobasobiziak.org helbidera idatzita.

JOSE ANTONIO LOIOLA ETA FLORENTINO LARRAÑAGA

Jose Antonio Loiolak (Lasaldetorre, Mendaro, 1942) eta Florentino Larrañagak (Agarretxiki, Mendaro, 1946) taldekideen aitortza jaso zuten zapatuan santa eskean. Larrañagari eta Loiolari egindakoa ez zen izan, baina, aitortza bakarra. Urte askoan santa eskekoei bazkaria prestatu dietenak eta santa eskeko beteranoen taldekoak ere izan zituzten akorduan. Bideoa: barren.eus

 Ainara Argoitia



Jose Antonio Loiola eta Florentino Larrañaga.

Bazkalondorako egin dugu hitzordua, Aizpen, azkeneko urte askoan Mendaron santa eskekoen sehaska eta altzoa izan den elkartean. Astelehena da, eta oraindik biharamunarekin daudela aitortu dute biek. "Biharamun goxoarekin", zehaztu dute, jakin badakitelako izango dela oraindik bestondoa kendu ezinda ibiliko den kantu lagunik. Zapatuko santa eskeko gorabeheraz berbetan topatu ditugu. Osasun kontuengatik, Florentino Larrañagak ez du bi urtean santa eskera batzerik izan, baina Jose Antonio Loiolak ez du azkeneko 35 bat urtean hutsik egin eta hura ari zaio errepassoa eginez. 79 urte ditu Florentinok eta 82 Jose Antoniok, eta haiei esker dauka arnasa gaur santa eskeak Mendaron.

Eskeko lagunen aitortza jaso zenuten zapatuan. Derrigor izan behar da hori gauza handia.

J. Antonio Loiola: Bai. Ustekabeko handia izan zen, oso hunkigarria. Ilusio handia egin zigun.

Florentino Larrañaga: Dotorea izan zen, bai. Ez dakit horrenbeste merezi genuen, baina hartuta pozik gaude. Beste gehiagok ere mereziko zuten guk beste, urtero-urtero etorri diren beterano gehiago ere badirelako taldean, baina guri esan digute geu ibili izan garela tira egiten honi eta horrexegatik izan dela.

■ ■ *Santa eskearen
transmisioa
egin dugu gure
ustez eta erreleboa
ziurtatu ere bai* ■ ■

Zein izan da zuen egitekoa?

F.L.: Santa eskeari eustea edo. Bertsolariak eta trikitilariak inguratu, bazkaria lotu, paper kontuak zuzendu... Horretan ibili gara gu, baina lagunak izan ditugu bueltan, bik bakarrik ezin dutelako santa eskea egin.

J.A.L.: Sasoi batean jende bila ibilitakoak ere bagara. Bi kuadrilla osatzeko jende mordo behar izaten zen, eta nahikoa lan! Bertsolariak eta trikitilariak inguratzea ere ez da beti erraza izan. Gaur musika eskolak ematen dizkigu trikitilari ugari, baina urte batean soinuulerik ez eta Debako Urki ere ekarri genuen [Miguel Sagastume], Sabin Longarteren bidez. Ni neu etsita

ere egon izan naiz urte batzuetan, lagatzekotan, baina Florentinok beti esan dit ezin genuela laga, guk laga ezkeru amaituko zelako hau. Orain indarra hartu du berriz ere santa eskeak eta ikaragarritzko poza ematen dit horrek. Gure ustez, transmisio hori egin dugu eta erreleboa ziurtatu ere bai.

F.L.: Bai ba!. Bertso eskola ere badago orain Mendaron, eta aurki koplariak ere emango dizki-gu akaso. Gure biloben lagunak ere animatu izan dira urte batzuetan, aurtan Ospasko mutikoxkorra animatu den bezala.

Noiz irten zineten estreinakoz santa eskean?

J.A.L.: Soldadu joan baino lehen hasi nintzen ni, 19 bat urterekin. Azpiazunean nengoen ni orduan lanean, eta enpresako nagusia zen orduan Mendaron alkate, Ramon Gartzia. Hari eskatu behar izaten zitzaion baimena santa eskera irteteko, alkateari. Eman zigun eta akordatzen naiz nola joan ginen Billaleko Javierren arrebak egindako kukurutxo tipoko kapela loradun batzuk jantzita eskera. Agarre baserrian egon zen morroi nafar bat izan genuen koplari orduan, eta soinuarekin Fermin *Gerriñe*, Mendaroko Oñati etxekoa [gaur frontoia dagoen lekuan zegoen etxea]. Bost bat urtean ibili nintzen eta gero utzialdi demasa egin nuen. Eta hurrengo hasi nintzenez, Patxi Olazabalek berotuta hasi nintzen. Esango nuke bera izan dela Mendaron santa eskearen hirugarren etapa honen sustatzaile nagusia. Herriko dantza taldekoei arropak egiteko dirua batzeko berreskuratu genuen santa eskea. Ez daukat gogoan noiz izan zen, baina orain 35 bat urte izango zela kalkulatzeko dugu erretratuetatik. Harrezkero beti irten naiz santa eskean.

F.L.: Batera hasi ginen gu biok orduan, baina aurretik ibilia nintzen neu ere santa eskean. 24 bat urterekin irten nintzen estreinakoz eskera, Jose Zubizarreta *Armaixarekin*. Mutriku aldera ere joaten ginen. Eta ibili ginen gero Juanito zana koplari hartuta ere [Juanito Loiola]. Bazkari bat egiten genuen batutakoarekin gero Emeterionean, eta sobratzen zena urte horretan soldadu joan behar zirenei ematen zitzaion gastuetarako. Geroago, Guruzpe elkartearantzako hasi ginen batzen. Jose Antoniok esandako moduan, orain 35 bat urte ekin genion azkeneko ekinaldi honi. Hementxe, afari baten bueltan, erabaki genuen santa eskera irte-

"Herriko dantza taldekoei arropak egiteko dirua batzeko berreskuratu genuen santa eskea, duela 35 bat urte"

tea. Patxi Olazabal, gu biok, nire andrea [Rosario Gorrotxategi], eta besteren batzuk ere hemen ziren afaritan, dantzarien kargu zutenak. Dirua nahi zuten dantzariei arropak josteko eta etorri zitzaizkidan esanez herri-kirol saio bat antolatu behar nuela dirua inguratzeko. Herri-kirolekin ezin zen, baina, dirurik atera eta esan nien ateratzekotan santa eskean atera zitekeela.

J.A.L.: Aizpeko sozio mordoska bat batu ginen taldera, eta koplari aritzeko lotu genituen Andoni Larrañaga azpeitiarra eta herriko lau gizon: gure anaia Juanito, Billaleko Javier Urbieta, Manuel Loiola *Panizo* eta Isidro Astorkia *Olabaza*. Urte batean omenaldia ere egin genien koplari. Akorduan daukat hementxe, Aizpen, zelan jardun ziren gazteagoak, etxe bueltakoak asko, omen duei koplaka. Sabin Longarte eta Iñaki Kortaberri trikitilariak ere omenduen artean zeuden orduan.

F.L.: Juanitok eta biok ekarri genuen Larrañaga, orain panderojole dabilena. Joxe Agirreren [Azpeitia, 1929-2012] bila joan ginen, baina ezetza eman zigun hark, egun osoan ibiltzeko ez zegoela esanda, eta ekarri genuen Larrañaga, Joxek berak esanda. Laga nahi zuela esan zigunean Beñat [Lizaso] bidaliko zigula esan zigun, hobea zela eta. Eta geroztik etxeko daukagu Beñat. Min hartuta egon zen urteren batean kenduta, beste denetan etorri da koplari. Falta izan zen urtean Anjel Mari Peñagarikano ekarri genuen. Lizaso eta Mañukorta izango dira kanpotik etorritakoetan urte gehien egin dituztenak hemen koplari.

Egun osoko lana izaten zenuten lehenengo urteetan. Hirugarren etapa honetan, baina, egun erdi-koa da. Baserrietan ere gutxituko zen jendea eta pentsa daiteke derrigorrean hartutako erabakia izan dela.

J.A.: Hirugarren etapa honetan, lehenengo urte batzuetan, goiz eta arratsaldez ibiltzen ginen eskean. Goizetik pasatzen genituen Aranerreko



Rosario Gorrotxategi eta Florentino Larrañaga senar-emazteak biloba Axular Larrañagarekin, atarian.

baserriak eta Garagartzako kalea. Gero bazkal-tzen genuen Aizpen, eta arratsaldean segi Alkorta mendira eta Itziarko mugaraino, Sarobe eta Mantarrei baserrietara!. Handik bueltan gelditzen ginen Lizarantzu baserrian, eta Emeterio tabernan kantatzen genituen afaldu aurreko azkeneko koplak. Zalea zen Emeterio, bai eta emaztea ere, eta handik pasatu arteko onik ez zuten izaten.

F.L.: Gu ere antzera. Jose Antonio Garagartzako taldean ibili da beti, eta ni, berriz, Azpilgoetakoan. Goizetik Sahatzu mendiko baserriak eta kalea koplutzen genituen, eta bazkalostean joaten ginen Mendarozabalera. Azkenerako beteta amaitzen genuen. Eta hori hirugarren ekinaldi honetan beti kotxez mugitu gabela. Baserri batzuetan puntada batzuk ere entzun izan ditugu horregatik. Hamabost bat urte izango dira arratsaldez irteteari laga genionetik. Orain, beste modutan ibiltzen gara. Goizean koplutzen ditugu hiru auzoak, batzen gara gero bazkaltzeko, eta bazkalostea luzatzen da norberak nahi duen beste. Ikaragarri gustatzen zait Aizpen egoten den giroa. Gaztetu egiten naiz gazte artean. Eguerdira artekoa izatearekin santa eskeak asko irabazi duela pentsatzen dut. Aho gustu onez joaten da jendea etxera, pozik, hurrengo urtean itzultzeko gogoz. Baserriak ere gutxituko ziren, baina mordoska bat koplutzen ditugu oraindik. Gehiago da, baina, bestea.

Santa eskeko argazki zaharretan ez da emakumerik ageri. Gaurkoetan, berriz, emakumeak gehiago dira. Noiz zabaldu zitzaizen andrazkoei aukera?

J.A.L.: Ni kulpatzen naute horrena. Sasoi hartan ez zen emakumezkorik ikusten santa eskean eta

etorri zitzaizkigunean nire iloba Iraide Loiola eta beste batzuk etorri nahi zutela esanez, ni ere ez nintzen alde agertu. Oker geunden.

F.L.: Akordatzen naiz etorri zitzaizkigula herriko lauzpabost emakume esanez Mutrikun hasi zirela andrazkoak ere santa eskean eta laga egin behar geniola. Ospasko alaba Juanita eta Maria Asun Loiola, Mari Jose Aranberri zena, Mari Jose Larrañaga eta Juanita Ulazia *Iturgaingo* dauzkat gogoan nik. Gizon artean esaten zen santa eskea galdu egingo zela emakumeei etortzen laga ezker, baina ez ba! Egoskortu ziren emakumeak eta eskerrak, bestela gaur ez ginen bi talde egiteko beste ere izango. Legezkoa da, gainera, baina orduan beste garai batzuk ziren eta ikusi gabe geunden halakorik. Sortu zen zalaparta orduan, baina eskerrak erabaki zuzena hartu zen. Zer urtetan izan zen ez daukagu gogoan.

Zer da zuentzat santa eskea?

F.L.: Zaindu beharreko jai. Santa eskeak indar handia izan du beti gure inguruan, eta horri derrigor eutsi behar diogu. Ni neu ezagututa nago gure baserrian hiru eskeko kuadrilla. Bata, gurean, Agarretxikin, bestea bestekoan, Agarre Handin, eta hirugarren kuadrillakoak etxeburuan zain. Mutrikuarrak, Larruskaingoak eta sanmigeldarrak etortzen ziren. Ni mutikoxkorra nintzen orduan eta oinez etortzen ziren. Gu geu, kinto gazteak, irteten hasi ginenean, iluntzez hasi ginen. Lanetik ordu erdi bat aurretik irten, baserri baserri eskean ibili eta goizaldeko laurak aldera amaitzen genuen Ferminenean, Plazan. Handik zuzenean etxera, lanera joateko berriro.

J.A.: Nik ere ume-umetatik ezagutu dut. Lehen, gaeuz irteten ziren, Santa Ageda bezperan. Akorduan daukat ohetik entzuten genuela soinu hotsa goizaldera, eta jaikitzen ginela saltoan santa eskekoak agurtzera. Festa handia da santa eskea. Herrian beti egoten da laguntasuna behar duena eta diru eske joaten gara gu, baina niretzat hori baino garrantzitsuagoa da ohitura zaharrari eustea eta herrian jai-giroa zabaltzea. Orain pixkat hoztuta dago kalea, baina hala ere, ibili beharra dago, usadio honi eutsiko bazaio.

F.L.: Kalekoa gogorra egiten da. Orratzburudun zuriak eta egunkari paperezko pilota hutsen bat ere bota izan digute inoiz kalean, baina denok ez garela bedinak pentsatu eta aurrera! Base-rietan gehiago estimatzen da santa eskea, eta egiten diguten harrera ere beste bat da. Hemendik gure esker ona zabaldu nahi nuke etxe guztietara. Esan behar dugu santa eskeko egunean etxean egotekoak ez diren askok deitu ere egiten digutela, jakinarazteko eta dirua aurrez emateko.

Anekdotarik ere izango da ba horrenbeste urtean...

J.A.L.: Akordatzen naiz edana etxe denetan eskaintzen ziguten arren, Aizpen zahatoa beteta irteten ginela kantura, eta behin, santa eskera hasi eta laster, Lizarrolan gazta oso bat eman zigutela eta Mantarregi baserrira aurretik gelditu eta jan genuela oso-osorik. Bete-bete eginda han joan ginen kantuan, ikaragarritzko lekaixoak botaz.

F.L.: Santa eskean sarri egiten du hotza eta elurretan ere ibilitakoak gara. Eskapadak ere egin izan ditugu baserri-bideetan. Idiazabaletik gora, atzeraka sartu zitzaigun behin kotxea zuloan, elur lapatxetan, eta irten ezin gero gora! Panderojolea eta koplariak aurreko kotxe batean joanak ziren gora, eta gu soinujolearekin behean, *kieto*. Soinurik gabe kantatu zuten orduan. Bide estuak eta aldapak dira, eta kontu handiz ibili behar da. Hazaña batzuk egindakoak ere bagara santa eskean, baina denak ezin ba kontatu! Iluntzerako pixkat kargatu ere egiten ginen garai batean, sa-soia ere ona geneukalako.

Agur itxura izan zuen zapatukoak, baina hala al da benetan?

J.A.L.: Orain bi urte esan genien batzordekoei gu

"Ezagututa nago ni gure etxean eskeko hiru kuadrilla. Bata, gurean, Agarretxikin, bestea bestekoan, Agarre Handin, eta hirugarrena etxeburuan, besteek noiz bukatuko zain"

lagatzera gindoazela, antolakuntza taldea behintzat. Iaz, berriz, elkarki eskua emanda zin egin genuen Patxik eta biok santa eskean irteten ginen azkeneko aldia izango zela. Eta etsipena emanda nengoen egia esan, baina gelditu ninduen Patxik kalean derrigor etorri behar nuela esanez. Omenaldia lotu dutenen konplizea izango zen seguruen Patxi. Datorren urtean, hala ere, ez dakit zer egingo dudun. Goizean gustura joaten naiz, ilusioz, baina azkenerako luze egiten zait, 82 urte ere badauzkat eta. Dudan lagako dugu nik.

F.L.: Kalekoa luze egiten da izan ere, baina niri bi urtean etorri zait joan ezina eta datorren urtean ez nuke falta nahi. Nik ere 79 urte badauzkat, baina gaztetu egiten naiz santa eskean, eta ahal dudan artean jarraituko dut. Eskarmentua jarriko dugu guk.



Jose Antonio Loiola seme Andonirekin, zapatuan.



USADIOAK BIZI-BIZI DIRAU

✍️ Ainara Argoitia

Sei koplari, dozena bat trikitilari eta panderojole, eta hogeita hamarren bat kantu lagun batuta, 50 bat laguneko taldea osatu zuten zapatuan Mendaron santa eskekoek eta hiru taldetan banatuta koplatu zituzten herriko baserri-auzoak eta kalea. Eskuzabal jokatu zuten haiekin herritarrek eta guztira, 2.677 euro batu zituzten. Aurten, Arno guraso elkartearentzat izango da bildutako dirua. Ohi legez, Aizpen bukatu zuten goizeko kantu-erronda eskekoek, mahai bueltan, baina bazkalostean ere izan zen kanturako eta dantzarako aukerarik. Momenturik hunkigarriena ere arratsaldez etorri zen. Izan ere, urteetan Mendaroko santa eskearen sustatzaile nagusi izan diren Florentino Larrañaga eta Jose Antonio Loiola omendu zituzten taldekideek, herrigintzan egindako lan eskerगतिक. Argazki gehiago eta bideoak: barren.eus







Yunes Lehbide Becher eta Abdu Mohamed Ahmed.

LEIHO BAT ESPERANTZARI

✍ Ainhoa Andonegi 🗣 Iera Larrañaga / Goreti Elortza

'Oporrak Bakean' egitasmoak harrera familiak behar ditu. Mendebaldeko Sahararekiko elkartasun ekimena da, eta Saharako ume errefuxiatuei udako oporrak bakean pasatzeko aukera ematea du helburu. Afrikako azken kolonia da Mendebaldeko Sahara, eta saharar asko erbestean bizi dira, basamortuan, Aljeriak lagatako lurretan. 'Esperantzari leiho bat' leloa jarri diote aurtengo kanpainari, eta horren barruan etorriko dira umeak Euskal Herrira uda pasatzera. Horietako bi izango ditugu Elgoibarren, Abdu Mohamed Ahmed eta Yunes Lehbib Becher, beraien familia elgoibartarrekin. Iera Larrañagak hirugarren urtez hartuko du Abdu etxean, eta Yunes bigarren urtez etorriko da Gaizka Etxaniz eta Goreti Elortzaren etxera.

Saharako Euskadiko Ordezkaritzak, *Oporrak Bakean* programa laguntzen duten udalak eta ekimen hau posible egiten duten elkarre eta harrera-familietako ordezkariak aurkeztu dute aurtengo egitasmoa, eta Saharako umeak etxean hartzeko familiak behar dituztela nabarmendu dute. Euskal Herrian urte luzez garatzen ari diren ekimena da hau, eta azken 15 urteotan 4.597 ume saharar hartu dituzte udan euskal familietan. Euskal Autonomia Erkidegora 153 ume etorri ziren 2022an, 183 hurrengo urtean eta, iaz, 188. Harrera familiez gain, lau aterpetxe ere egokitu dituzte udan umeak hartzeko: hiru Biz-

kaian eta bat Gipuzkoan. Koronabirusaren pandemiaren aurretik ume gehiago etortzen ziren, eta kopuru haietara iristeko familiak behar dituzte. Erbesteratuta Aljeriak emandako basamortu zatian bizi diren ume horiei leiho bat zabaldu nahi diete esperantzarako, eta horretarako deia egin diete euskal familiei. Interesatuek martxoaren 15era arteko epea dute izena emateko, obkanpaina@gmail.com helbidera idatzita.

Orain dela bi urte eman zuen pausoa Iera Larrañagak (Deba, 1989). Deban badago familia bat urte pila batean ume sahararrak ekarri izan dituen uda pasatzera, eta familia hori izan du

erreferente Larrañagak. Alaba bakarra da bera, eta amari beti eskatu izan zion umetan Sahararako umeren bat ekartzeko Debara. Amak, baina, udan lan egiten zuen tabernan, eta umetan ezin izan zuen bere ilusioa bete Ierak. Orain, bai, ordea. Irakaslea da lanbidez, eta ingurukoen laguntzarekin bete du ilusioa. "Askok uste dute irakasle guztiok bi hilabeteko oporrak dituztela, baina nire kasuan, uztailaren erdialdera arte lan egin behar izaten dut. Hortaz, bakarrik bizita, norbaiten laguntza behar nuen udako bi hilabeteetarako ume saharar bat ekartzeko". Amak erretiroa hartu zuenean eman zuen pausoa, eta duela bi urte eman zuen izena *Oporrak Bakean* egitasmoan. "Amaren eta gertuko senideen laguntzarekin moldatzen naiz".

Aurtengoa hirugarren uda izango du Abduk Elgoibarren. Orain arte umeek hiru urtez etortzeko aukera izaten zuten, baina aldaketak egin dituzte egitasmoan eta, horri esker, orain lau aldiz etortzeko aukera dute: "Aldaketa hori oso positiboa izan da guretzat", azaldu du Larrañagak. "Lehenengo urtea elkar ezagutzen pasatzen dugu; bigarren urtean egokitzapenean pasatzen ditugu hasierako egunak eta etxera joateko eguna gainean dugunean hasten gara disfrutatzen; eta hirugarren urtea, gozameneko urtea izaten dena, azkena izaten zen oraintsu arte. Horrek nekea eragiten zuen familietan, eta arduradunek familien eskaera ontzat eman dute".

2023ko udan ekarri zuen Ierak Abdu estreinakoz. Izatez, 9 urteko neskatila bat zetorren berarekin uda pasatzera, eta etxean dena prest zuen hura hartzeko. Iritsi baino egun bat lehenago, ordea, dei bat jaso zuen. Telefonoz esan zioten bere etxera etortzekoa zen neska ez zela etorri, baina nahi bazuen, mutiko bat hartzeko aukera zeukala. Bat-batean bere planak hankaz gora jarri ziren: "Umeak Saharatik soinean

Azken 15 urteotan 4.597 ume saharar etorri dira Euskal Herrira oporrak bakean pasatzera. Hala ere, pandemia garaitik kopurua asko jaitsi da eta harrera familiak behar dituzte, Saharako umeak udan etxean hartzeko.

daukatenarekin etortzen dira, eta hemen behar duten guztia guk ematen diegu. Nik neska batentzako arropa neukan prest, eta egun batetik bestera arropa askok ez zidan balio". Hala ere, ez zuen birritan pentsatu, eta baietz erantzun zuen: "Lankideei, lagunei eta senideei komentatu nien gertatu zitzaidana, eta mutilentzako arropaz betetako poltsakadak jaso nituen berehala".

Eta iritsi zen Abdu, 9 urteko mutikoa. "Lotsatia eta isila, baina maitagarria". Hasiera guztiak izaten dira konplikatua, baina berehala bertakotu zen. Beharrezko osasun zaintzak egin zizkieten, eta betaurrekoak ipini zizkieten, konturatu zirelako oso gaizki ikusten zuela: "*Oporrak Bakean* egitasmoak badauzka dirulaguntzak horrelako kontuetarako, eta Durangoko optika batera joan behar genuela esan zidaten. Zorionez, ikusmena zuzendu zaio eta orain ez du betaurrekorik behar".

Sekulako esperientzia izan zen Ierarentzat, eta hurrengo udarako ere egin zuen eskaera. Berak ez zeukan zalantzarik, baina itxuraz Abdu ez zegoen hain konbentzituratuta: "Ezkontza bat zeukaten, eta ez zuen ospakizun hura galdu nahi. Azkenean etorri zen, eta iristeaz bat ahaztu zitzaion ezkontzaren kontua. Primeran pasatu zuen bigarren urtean ere, eta aurten berriz etorriko da. Ni pozik nago laugarren urtez ere etorri ahal izango delako datorren urtean, bestela aurtengoa izango litzateke azkena".

Goreti Elortza (Bergara, 1983) eta Gaizka Etxaniz (Elgoibar, 1984) iaz sartu ziren egitasmoan. Goretik umetatik ezagutzen zuen ume sahararrak ekartzen zituen Bergarako familia bat, eta bere kuadrillako lagun batek ere ekarri izan ditu umeak udan. Urteak zeramatzan gaiari bueltak ematen, eta iaz, bere bikotekide Gaizka Etxanizekin konpartitu zuen ideia: "Guk ez daukagu seme-alaba-

Aurten arte, ume sahararrak hiru urtez etor zitezkeen Euskal Herrira 'Oporrak Bakean' egitasmoaren baitan, baina orain lau urtez etor daitezke, harrera-familiak hala eskatu dutelako.



Abdu Mohamed Ahmed eta Iera Larrañaga.

rik, baina ilobak bai, eta haietako batek gainera 9 urte zituen iaz; etortzen diren umeen adin bueltakoa da alegia. Momentu egokia zela esan nion Gaizkari, gure burua guraso lanetan probatzeko ere". Hasieratik eman zion bikotekideak baietza eta aurrera egin zuten. "Ierarekin jarri ninduten harremanetan, bera delako eskualdean egitasmu honen arduraduna, eta beharrezko azalpen guztiak eman zizkidan".

Yunes etorri zen Goreti eta Gaizkaren base-ri-etxera, 9 urteko mutikoa. Goretik kontatu du argazki bat eta izena besterik ez zeuzkatela eta hasieran oso urduri zeudela baina ilusioz eta emozio handiz jaso zutela umea: "Lorik egin gabe joan ginen umearen bila, gau osoa buruari bueltaka pasatu ostean". Behin umea beraiekin zegoela, hizkuntzarena izan zen gairiditu beharreko lehen oztopoa. Mendebaldeko Saharakoen hizkuntza hassaniera da, arabiarren dialektoa. "Eta Google-ek ez du dialekto hori ezagutzen". Goretik eta Gaizkak euskaraz egin zioten hasieratik Yunesi; asko hitz egiten zioten, eta dena errepikatu, eta berehala lortu zuten elkar-ulertzea: "Oso azkar-ak dira, eta hizkuntza berehala barneratu zuen". Gomendatu zieten umearen integrazioarako oso

Ierak eta Goretik ezagutzen zituzten ume sahararak ekartzen zituzten beste familia bana eta haiek izan dituzte erreferentziatza. Iera bera da orain eskualdeko arduraduna.

egokiak izaten zirela udalekuak, eta Atxutxiamaikan eman zuten izena. Abdurekin bat egin zuen udalekuan Yunesek, eta beraientzat oso lagungarria izan zen Abdu ezagutzea. "Ez zuten elkar ezagutzen, kanpamendu desberdinetakoak direlako, baina jatorri berekoak dira azken batean, eta oso lagungarria izan zen biezat, baina bereziki, Yunesentzat. Bere lehenengo urtea zen hemen, baina Abdurentzat bigarrena, eta hizkuntza aldetik askoz aurreratuago zegoen Abdu euskararekin. Horrek asko lagundu zion Yunesi", adierazi du Goretik. Bat dator Iera ere baieztapen horrekin: "Zipi eta Zape bihurtu ziren". Atxutxiamaikakoentzat esker oneko hitzak dituzte biek, hezitzaile bat jarri zitelako umei, eta asko lagundu zitelako.

AGURTZEA ZAILA

Harrera familiek badakite udan umeak ekarzteza ez dela adoptatzea, eta bi hilabeteren ondoren agur esan beharko diotela elkarrri. Umeek ere badakite uda amaitzean etxera itzuliko direla, eta etortzen diren bezain pozik edo gehiago joaten dira bueltan. Ierak ondo eramaten du agur esateko momentua: "Aspektu horretan nahiko hotza naiz. Badakit zer den hau eta momentua iristean lasai egoten naiz. Nire amak egin zuen negar Abdu aireportuan agurtu genuenean, baina umea oso pozik zegoen etxera itzultzeko eta niri horrek lasaitasuna ematen zidan". Iazko udan Abdu gainerako umeak baino egun batzuk geroago itzuli zen, ebakuntza bat egin behar izan ziotelako, eta urduritu zen umea: "Badakite ez daudela etxera itzultzeko nahi beste aukera, eta dauden apurrak galduz gero, hemen geratu behar direla. Esan nion lasai egoteko, eta hemen geratu behar bazuen Ikastolara joango zela, baina Abduk etxera joan nahi zuen. Arraroa izaten da etxera itzuli nahi ez izatea, baina umeren bati gertatu izan zaio".

Goretik, aldiz, agurtzeko momentua ez zuen hain ondo eraman: "Ikusten nuen beste umeen artean sartu eta bazihoala hegazkinera, ia agur esan gabe, eta han joan nintzen beregana, muxu ematera. Begi bistatik galdu nuenean, negar malkotan hasi nintzen". Pena handia eman zion agurtzeak, baina aldi berean lasaitua ere hartu zuen. Goretik irakaslea da, eta bi hilabete izaten ditu jai udan, baina Gaizkak uztailean lan egiten du. Hortaz, uztaila bakarrik eman zuen Goretik une askotan: "Berari begira pasatu nuen uda osoa, sekulako tentsioa neukan". Gogoratu du hondartzara joan ziren egun batean bizi izan zuena: "Hondartza jendez lepo zegoen eta Yunes korrika joaten zitzaidan alde batetik bestera. Uretan sartzen zen, igeri egiten jakin gabe. Olatuetan ibiltzea gustatu zitzaion, eta ni uneoro bere atzetik ibili behar nintzen, zaintzen". Zentzu horretan mutil ausarta dela dio Goretik, sekula uretan ibili gabea izateko beldurrik ez duelako: "Olaizaga kiroldegiko igerilekura joan ginen egun batean ere, uretara salto egin zuen gu konturatzerako!". Aspektu horretan Abdu askoz lasaiagoa dela dio Ierak, baina berak ere eraman zuen Abdu, igerian ikasi zezan.

SAHARARA BIDAIA

Goretik eta Gaizka Saharan izan dira Eguberrietan, Yunesen kanpalekuan. Ierak ere badauka Abduren bizilekua ezagutzeko gogoia, baina orain arte ez du hara joaterik izan. "Aste Santuan joango naiz", esan du irribarre handi batekin.

Haien bizilekua ezagutzeak izugarri lagundu die Gaizka eta Goretik Yunesen jokabide asko ulertzen: "Lehenengo egunetan, belarra ukitu eta ukitu ibili zen baserrian, erabat harrututa. Beraien bizitokia ezagutu genuenean konturatu ginen ez zuela inoiz mendi berde bat ikusi. Ikustekoa zen baita ere iturritik ura irteten ikusteak sortzen zion harridura edo komuneko bonba botatzeak eta argia piztu eta itzaltzeak sortzen zion harridura. Han ez daukate horrelakorik". Futbola, aldiz, nazioarteko kirola da, eta hori bai ezagutzen dutela ondo. Real Madril eta Bartzelonako jokalarien izenak ondo baino hobeto dakizkitez eta futboleko asko jokatzen dute, ortozik eta desertuan: "Mintxetako igerilekua-



Goretik eta Gaizka, errefuxiatuen kanpalekuan, Yunes eta haren anaiarekin.

ra joan ginen lehenengo aldian uste dut ez ginea igerilekura iritsi. Futbol zelaia ikusi zuenean pozez zorutzen jarri zen. Oinetakoak kendu eta baloiarekin jokatzera joan zen". Gutxiarekin bizi dira han, baina teknologia iritsi zaie eta Youtube oso ondo ezagutzen dute: "Han ere, hemen bezala, umeak sakelako telefonoei begira bizi dira. Gure etxean berehala ikasi zuen Youtube jartzen telebistan eta arauak jarri behar izan genituen". Jolasak ere desberdinak dira. Saharara joan zirenean ulertu zuten udalekuetan gertatu zitzaion egoera bat ere: "Udalekuetako lehenengo egunetan konturatu ziren uso bat ikusten zuen bakoitzean Yunes zoro moduan jartzen zela, eta egun baten uso bat harrapatzera zihoala, terrazan eserita zegoen emakume bati kafea bota zion gainera. Errieta egin zioten, usoak bakean lagatzeko esanez, eta ni ere saiatzten nintzen esplikatzeko usoak ez direla harrapatu behar, baina berak ez zuen ulertzen, beraien kanpalekuan oso ohikoa delako usoak harrapatzen jolas egitea".

Hemengo aldean gutxiarekin bizi dira. Etxeak kanpin denda estilokoak ziren orain dela gutxira arte, baina orain, harrizko edo adreiluzkoak ere badaude: "Han ere, hemen bezala, diferentziak daude eta gehiago daukanak etxe hobeak dauka". Hori bai, daukaten apurra emateko daukate: "Ondo baino hobeto hartu gintuzten, dena zeukaten guretzat". Astebete egin zuten han, eta haien errealitatea ezagutzea oso aberasgarria egin zitzaion. "Emozionantea izan da, baina oso gogorra ere bai. Han ez daukate ezer, ez dago etorkizunik eta hango bizimodua latza da". Are latzagoa gainera emakumezkoentzat: "Gaizkari esaten nion erratza pasatzeko edo ontziak garbitzeko, eta Yunesen amak ezin zuen ulertu. Esertzeko esaten zion, eta niri ere esaten zidan hori ez zegoela ondo. *Oporrak Bakean* programan ere neskak oso gutxitan sartzen dituzte".

Eskubide kontuez ari garela, ezin dugu ahaztu eskubide guztiak urratuak zaizkion herria dela sahararrena. Urteetan ari dira borrokan beren eskubideak aitortuak izateko eta NBEk hitz emandakoa eta legez dagokiena betetzeko zain daude. Basamortuan eta erbesteratuta bizi dira, inolako aitortzarik gabe. "Alde horretatik badu Euskal Herriarekin antzekotasunik, eta umeak



Goreti Elortza eta Gaizka Etxaniz Yunesekin.

hona iristen direnean berehala ulertzen dute hemengo egoera politikoa. Familiakoekin bideo deiak sarri egiten genituen, eta berehala esaten zieten etxekoei hau ez zela Espainia, Euskal Herria zela". Haiek ere gu bezala beraien hizkuntza propioa dute, eta hari eusten diote: "Hassaniera da beraien hizkuntza, eta arabieraz gutxi hitz egiten dute. Elgoibarren berehala konturatzen dira zeintzuk diren Saharakoak janzkera eta hizkuntzagatik, eta ilusioa egiten die haiekin bazteak".

Ardura handia hartzen dute harrera familiek, baina badakite bi hilabeteko epe hori arnagune ikaragarria dela umeentzat. Esperientzia potentia baina oso aberasgarria izan dela aitortu dute bi familiek, eta euskal familiak animatu dituzte egitasmoan parte hartzera: "Hemengo umeentzat ere sekulako ikasketa prozesu aberasgarria da", adierazi du Ierak. "Inor ez da damutuko", gaineratu du.

Urtea hasi zenetik egunero igo da Karakatera Jose Luis Diez 'Txelu'



Jose Luis Diez *Txeluk* urteko lehen astean egunero Karakatera igotzeko erronka jarri zion bere buruari, entrenamendu modura, eta astea egin zuenean hilabete osora luzatzea erabaki zuen; eta, otsailera iritsitakoan ere eutsi egin dio eguneroko joan-etorriari. Hilabete batez hutsik egin gabe egunero Karakatera igo den inor ez dela egongo uste du. Ibili da galdezka Karakaten gora eta behera ibiltzeko ohitura dutenen artean, eta halaxe dela baieztatu diote. Iban Fernandez ere antzerako erronka batean murgilduta dago urte hasieratik, urtebeteko epean 365 alditan igotzea baita haren erronka, baina hark ere ez du bete egunerokotasuna, egun batzuetan igoera bat baino gehiago egiten baititu; baina egun batzuetan bakar bat ere ez.

Txeluk plazatik hasten ditu igoerak, itsas mailatik 40 metrora, eta tontorrean dagoen puntu geodesikoa ukitu ostean (742 m.) hasitako lekuan bukatu. Erronka datuetara ekarrita, 37 ordu eta 18 minutu erabili zituen urtarrilean egindako 31 igoera eta jaitsieretan. Guztira 230,37 kilometro egin zituen, eta 21.956 metrokoa izan zen desnibel metatua. Batez-beste ordu bat, 12 minutu eta 12 segundo behar izan zituen igoera-jaitsiera bakoitza osatzeko. Mendian ibiltzen denak badaki denbora onak direla, azkar egiten duela Karakatera joan-etorria. Txeluk, baina, denborei baino balio handiagoa ematen dio konstantziari, egun bakar batean ere hutsik egin ez izanari. Sei

egunetan eurtan egin zuen ibilaldia, eta gaez beste lautan, lana dela-eta.

Erorikorik ez duela eduki ere nabarmendu du. "Korrika txikian egiten ditut jaitsierak, bastoirik erabili gabe, eta irristaldi mordo bat egin arren, behin ere ez naiz lurrera erori; badauka meritu! eta hori sarritan aldatzen direla zoruaren kondizioak, lokatz eta hezetasunaren arabera, baina gozatu egiten dut jaitsieretan, eta Karakatekoa memorizatuta daukat", dio. Bi zapatila marka desberdin erabili ditu, aldatzea oinentzako ona dela uste baitu. Igoera guztiak bide zuzen eta gogorrenetik egin ditu, Karakateko igoerako partaide ia denek azken urteetan erabiltzen dutenetik, alegia. "Iturritik ez naizela pasatzen dauka txarra, eta ahoa sikatuta ailegatu nintzen tontorrera bizpairutan, baina karamelo bat busti nuen, ez baitut urik eramaten horrelako ibilaldi motz batean".

Otsailera iritsita, erronkarekin jarraitzea erabaki zuen Txeluk, pena ematen baitzion lagatzeak, eta belauneko min pixka bat kenduta ondo sentitzen delako. Eskarmentu handia du iraupen luzeko probetan, Ehunmilak moduko probetan parte hartutako baita, eta otsaila bukaerara arte jarraitzeko asmoa du. Hori bai, lagunekin ari da orain. "Urtarrileko igoera eta jaitsiera guztiak bakarrik egin nituen, baina otsailetik aurrerakoe-tan Catt Morkaikoko taldekiekin batera ari naiz, txandan-txandan".

Zuzendaritza taldea berritu du Morkaikok



Azken urteetan lau lagun aritu dira Morkaiko Mendizale Elkartearen zuzendaritza taldean, eta taldea berritzeko eta handitzeko deia egin zuten urtarrilaren 22an egin zuten urteko batzar orokorraren aurretik. Ez ohiko batzarra egin zuten lehenik, estatuak aldatzea onartzeko, zuzendaritza aldaketa batzar orokorrean egin ahal izateko aldaketa hori onartzea beharrezkoa zelako. Izan ere, indarrean zituzten estatutuen arabera, hauteskundeak egin beharko lituzkete zuzendaritzaz aldatzeko. Aldaketa onartu ostean egin zuten ohiko batzarra, eta handik irten zen zuzendaritza talde berria. Lehengoek jarraitzea erabaki

dute eta beste bost lagun batu zaizkie taldera. Jose Luis Diez izango da lehendakaria, Iñaki Laskurainen ordeiz, eta Denis Saiz lehendakariordea. Aitzol Arriola izango da idazkaria, Virginia Santamarta diruzaina eta bokalak, berriz, beste honako hauek: Angel Maria Tobajas, Iñaki Laskurain, Javier Guallar, Martin Dominguez eta Modesto Cid.

Batzar orokorrean, iazko urtearen errepasoa, antolatutako ekintzen balorazioa eta balantze ekonomikoa ere aztertu zituzten, besteak beste. 2025 urterako ekintzen egutegia ere aurkeztu zuten (*morkaiko.eus* webguneko Datozenak? atalean jarriko dituzte ikusgai, aurki).

Paula Calvok zazpi domina irabazi ditu Neguko Euskal Herriko Txapelketan

Igerilari juniorrak eta nagusiak lehiatu ziren joan zen asteburuan Iruñean, Neguko Euskal Herriko Igeriketa Txapelketan. Eibar Igerixan taldeko ordezkari Paula Calvo (Elgoibar, 2009) bi mailetan lehiatu zen, eta emaitza bikainak lortu zituen. Guztira zazpi domina eskuratu zituen: bost urrezkoak eta beste biak zilarrezkoak. Calvo azkarrena izan zen bizkarreko eta estiloetako 200 metroko probatan, juniorretan zein nagusietan; horrez gain, urrezko domina irabazi zuen junior mailako bizkar estiloko ehun metrokoan eta txapeldunordea izan zen, bai nagusiekin jokaturako bizkar estiloko 100 metroko proban,



bai eta juniorrekin jokaturako bizkar estiloko 50 metrokoan.

Padel kantxaren eta frontoiaren erreserbak Udalaren web orriaren bitartez egin beharko dira aurrerantzean Mendaron

Frontoiaren eta padel pistaren erabilera erreserbatu, ordainketa egin eta sarrerako giltzen kudeaketa Jubilatuen tabernaren bitartez egin izan du Mendaroko Udalak azken urteetan, tabernaren egutegi eta ordutegiak erabiltzaileentzat Udal bulegoek baino malgutasun eta erosotasun handiagoa eskaintzen zutela ulertuta, baina aurrerantzean web orriaren bidez egin beharko dira. Horretarako, bi ekipamenduen kontrolerako zerraila elektronikoak instalatuko ditu Udalak, eta zerraila hauekin integratutako software aplikazio bat ere bai Udalaren

web orrian, erreserbak eta ordainketak egiteko. Modu honetan, bi instalazio horietakoren bat erabiltzeko ordua hartzen duenean, herritarrak kode bat jasoko du sakelako telefonoan, erreserbatuta daukan denbora tartean dagokion instalazioko atea ireki ahal izateko. Sakelako telefonorik ez dutenek, udaletxeko sarreran jarritako eguneratze aparailu baten bidez eguneratu ahal izango den txartel bat lortzeko modua izango dute, bi instalazioetako atea irekitzeko. Mendaroko Gimnasioa arduratuko da kudeaketa guztiaz.

Kilimon trail lasterketarako izen-ematea, ia beteta



Urtarrilaren 14an zabaldu zuten 13. Kilimon Trail mendi lasterketan izena emateko epea, eta berehala bete ziren lasterketa motzerako jarri zituzten 150 plazak. Hori dela-eta, beste 50 dortsal ateratzea erabaki zuten antolatzaileek, eta oraindik ez dituzte denak banatu. 23 kilometroko lasterketa luzerako, berriz, 250 lagunetan zuten jarria partaideen muga, eta kopuru horretara iritsita, itxaron zerranda zabaldu dute antolatzaileek, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak eta Lizarpe Mendi Klubak. Aurten Euskal Herriko Kopa proba izango da Kilimon Trail lasterketa.





Mikel Leon
inmomikel@gmail.com

747 459 343
San Ignazio kalea 1,
20870 Elgoibar

 @mikel_inmobiliaria

Mikel
INMOBILIARIA

WEBGUNE BERRIA! Bisita gaitzazu! www.inmobiliariamikel.com


100 m² | 300.000 €


120 m² | 350.000 €


150 m² | 400.000 €


180 m² | 450.000 €


200 m² | 500.000 €


250 m² | 600.000 €


300 m² | 700.000 €


100 m² | 300.000 €


120 m² | 350.000 €


150 m² | 400.000 €


180 m² | 450.000 €


200 m² | 500.000 €


250 m² | 600.000 €


300 m² | 700.000 €

Euskararen kudeaketan egindako ibilbidea aitortu diote Danobatgroup kooperatiba taldeari

Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburorde Aitor Aldasoro Iturbe bisitan izan da Danobatgruppen Elgoibarko egoitzan, industria taldeak erakundearen barruan zein kanpoan euskararen erabilera sustatzeko eta integratzeko bi hamarkada baino gehiagoan eginiko "lan proaktiboa" ezagutzeko, eta lan horri balioa emateko. Danobatgroupeko Euskara Batzordeko koordinatzaile Idoia Bustinduyk jakinarazi duenez, taldeko kooperatiba guztiek euskara planak eta Bikain kalitate ziurtagiriak dituzte, Emunekin lankidetzan egindako 25 urteko lanaren ondorioz. Danobatgruppen euskararen aldeko apustua "argia" dela adierazi du Danobateko lehendakari eta



Danobatgroupeko lehendakariorde Jose Antonio Hidalgok.

Umeen eta nerabeen jai batzordeak osatu nahi dituzte San Bartolome jaien antolakuntzan eragile izan daitezten

San Bartolome jaietako Umeen eta Nerabeen Egunkak kudeatuko ditu aurten ere Elgoibarko Izararren Atxutxiamaiak Sailak, Udalak hala eskatuta, eta egun horietako egitaraua prestatzeko batzordeak sortu nahi dituzte. Batzorde horien helburua da umeak eta nerabeak Elgoibarko jaien bueltan eragile izateko baliabideak eskaintzea. Jaien inguruko gogoeta egin eta iritziak jasotzeaz gain, Umeen Eguneke eta Nerabeen Eguneke egitarauaren diseinua, antolaketa eta ebaluazioa ere egingo dituzte. Hori horrela, bertaratzen direnek beren egunean zer eta nola egin nahi duten erabakitzeke eta gauzatzeko aukera izango dute.

Bi bilera deialdi egin dituzte: 6 eta 12 urte bitartekoek Umeen Eguna prestatzeko saioa izango dute otsailaren 21ean, 17:00etan, Kultur Etxeko sotoan.



Nerabeen Egunerako bilerara, berriz, 13 eta 16 urte bitartekoak deitu dituzte. Martxoaren 7an izango da, 17:00etan, Aita Agirreko Areto Nagusian.

Sanbartolomeak antolatzeko bilera antolatu du Elgoibarko Udalak hilaren 20rako

Elgoibarko Udalak San Bartolome jaietarako proposamenak egiteko galdetegi bat jarri zuen online. Horrez gain, aste honetan bilera egitekoak ziren, baina datorren otsailaren 20ra atzeratu dute batzarra. Bileran, jaietako egitarauaren zirriborroa bateratuko dute, partaideen ekarpenekin. Era berean, proposatutako jarduerak koordinatu eta ba-

teratuko dituzte, "egitarau koherente, inklusibo eta parte-hartzailea" osatzeko.

Bilera antolatu ahal izateko, izena emateko eskatu dute Udaleko arduradunek, kultura@elgoibar.eus helbidera idatzita. Nahi duenak proposamenak ere egin ditzake helbide elektronikoko horren bidez.

Porrotx eta Marimototsen saioa gaur, Herriko Antzokian

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Ostirala iritsi da* ikuskizunaren bi saio egingo dituzte gaur, Elgoibarren. Herriko Antzokian izango dira biak, 17:00etan lehenengoa eta 19:00etan bigarregoa. Sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean.

Honela dio sinopsiak: "Gaur egun berezia da eskolan, Txapas irakaslearen azken laneguna baita. Harekin bizitako abenturak eta ikasitako gauza polit guztiak ospatzera datoz Pupu, Lore, Porrotx



eta Marimotots herriko lagunekin batera. Basoa, jolasak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak izango dira. Txapasekin beti da ostirala!"

Mendaroko aisialdia berpizteko lehen bilera egingo dute otsailaren 17an



Herriko aisialdi hezitzailea berpizteko prozesua abiatu du Mendaroko Udalak, eta horren barruan, *Herriko haur eta nerabeekin aisialdian lan egin nahi? Berpiztuko dugu Trikixapo?* topaketa antolatu du herriko gazteentzat. Hiru bilera egingo dituzte prozesu horren barruan, eta lehenengoa datorren astean izango da, otsailaren 17an, 17:30ean, udal-tertxeko Arno aretoan.

Eduardo Momeñeren argazki erakusketa zabalduko dute gaur

Eduardo Momeñe (Bilbo, 1952) argazkilari bilbotarraren azken lanak jarriko dituzte ikusgai gaur, Elgoibarko Kultur Etxean. Azken lau hamarkadetan zehar ateratako argazkiak jarriko ditu ikusgai, baina bereziki, aurpegi eta figurak izango dira protagonista. Ongarri Argazkilari Taldeak antolatu du erakusketa, Udaleko Kultura Sailaren laguntzarekin. Hilaren 28ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera, astelehenetik zapatura, 18:30etik 20:30era.



Reinier Elizalde eta Marina Lledoren kontzertua gaur, Mendaron

Reinier Elizalde *Negron-ek* eta Marina Lledok *Voces encontradas* kontzertua emango dute Mendaroko San Agustin kultur-gunean gaur, 21:30ean. Sarrerak Uztargi tabernan erosi dai-

tezke, baina kontzertua hasi aurretik ere egongo da erosteko aukera, aretoan bertan. Uztargi tabernak eta Galletiak gozotegikoek antolatu dute kontzertua, Gararock taldearen laguntzarekin.

LANA

Eskaintza

Adineko emakumea zaintzeko laguna behar dugu. Asteazkenetik igandera, 18:30etik 20:30era, eta larunbat eta igandetan 10:30etik 12:30era. Kontratua eskaintzen da. Beharrezkoa lan-baimena eta titulu soziosanitarioa izatea. **606 715 673**

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. **637 222 318**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago, etxeko langile moduan edo asteburuetan. Esperientzia. Arduratsua naiz eta titulu soziosanitarioa daukat. **632 355 103**

Edozertan lan egiteko prest nago. **614 179 659**

Garbiketa lanak egingo nituzke. Formazioa daukat. Berehala hasteko prest. Orduka. **632 721 342**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **661 063 891**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat. **614 114 360**

Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Esperientzia daukat. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nagoen erizaina naiz. Urteetako esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 505 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, jardun osora edo orduka. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **654 994 405**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. **605 402 030**

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxean zein ospitalean. Orduka nahiz jardun osora lan egiteko prest nago. Esperientzia eta titulu soziosanitarioa. **603 727 067**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Titulu soziosanitarioa eta esperientzia ditut. **688 489 881**

Umeak edo adinekoak zainduko nituzke. Erizain titulua eta titulu soziosanitarioa ditut. **643 097 648**

Adinekoak zainduko nituzke. Berehala hasteko prest nago. **643 097 599**

Arratsaldeetan eta asteburuetan lan egingo nuke. Adinekoak zaintzen esperientzia handia. Titulu soziosanitarioa dut. **631 020 169**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia. Etxeko langile moduan lan egiteko prest nago. **602 61 35 94**

Adinekoak edo umeak zainduko egingo nuke lan. Etxeko garbiketata lanak ere egiten ditut. Etxeko langile moduan lan egiteko prest. Esperientzia daukat. **611 215 176**

Adinekoak zein umeak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko lanak ere egiten ditut. **643 246 389**

Adinekoak zaintzeko edo garbiketata lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. **632 915 336**

LOKALAK

Lokal industrialia alokatzen da Ermuaranbide 20 behean. 10 auto-rentzako aparkalekua du kanpoaldean. **670 406 748**



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enkainatzailearen Erakunde Nazionala



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net


Gure komunitatean bizilagun batek urtebete baino gehiagoko atzerapenarekin ordaintzen ditu kuotak eta horrek likidezia arazoak sortzen dizkigu. Likidezia arazoan ondorioz, kontratatutako zerbitzuak atzerapenez ordaintzera behartuta gaude edota bestela gure poltsikotik dirua aurreratzen, kontratatutako zerbitzu horiek eten ez diezazkiguten. Zordun horiei errekaratu bat jarri ahal diegun jakin nahiko genuke.


Legeak ez du mugarik zehazten komunitateak zordunari ezarri diezazkiokeen errekaratuen gainean. Bizilagun batek dituen betebeharrak oso-osoan nahiz parterren batean betetzen ez dituen kasuetan, zigor klausula ezartzea legoke, eta Kode Zibilak berak klausula hori judizialki leuntzeko aukera eskaintzen du. Zigor klausula hori, baina, denek adostua izan behar da, eta adostu osteko arau-hausteetan bakarrik aplikatu ahal izango da, eta ez adostu aurretik egindako zorren kasuan.

AHOLKUA: Bizilagunen batzarrean adostu behar dira akordio horiek. Era berean, batzar hori bera izango da akordio horiek etetea erabaki beharko duena edota akordio horiek indarrean noiz arte iraungo duten zehaztuko duena.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidailita.



Zorionak, **Alex** txapeldun! 4 urte handi! Nuria eta familiakoen partez.



Zorionak, **Luken!** 7 urte jada! Ondo pasa eguna etxekoan partez.



Zorionak, **Aratz,** bihar 12 urte beteko dituzulako. Segi orain arte bezain jator, etxekoan eta lagunen partez.



Zorionak! 90 urte! Hartu maite zaituen jendea inguruan eta eutsi orain arteko bizipozari. Aittola Zaharren bilduko gara bihar, zuk merezi bezala ospatzeko! Etxekoak



Zorionak, **Asier** zure 25. urtebetetzeari! Wongako lagunen partez, egun izugarri bat pasatu eta ondo ospatu! Egurra, artista!

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

BARREnek kontu berria dauka
Mastodon.eus-en

Deskargatu aplikazioa eta jarraitu gure kontua:
mastodon.eus/@barren@tkm.eus



Zer da Mastodon.eus?

Mastodon.eus euskara eta euskal kulturaren komunitatearentzat sortutako Mastodon instantzia bat da. 2018an hauek sortua:

Azkue Fundazioa / Dinahosting
Iametzta / Laborategia.eus
PuntuEUS / Talaios Koop




EXPRESS ESKAINTZAK!

**LG A9K-LITE1C-500
SERIEKO
ERRATZ
XURGAGAILUA**

289 €

- Smart inverter
- Konpresore-sistema
- Karga-estazioa
- Hodi teleskopikoa, altueran moldagarria



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

14 BARIKUA

16:30 Odol ateratzea. Jubilatuen Biltokian. Txanda hartzeko: 623 328 408

17:00 - 19:00 Antzerkia: 'Ostirala iritsi da'. Pirritx, Porrrox eta Marimotots pailazoen emanaldia. Herriko Antzokian.

18:30 Argazki erakusketa: Eduardo Momeñe argazkilariaren lanak jarriko dituzte ikusgai. Ongarri argazkilari taldeak antolatuta, Kultur Etxean.

20:30 Kontzertua: Reinier Elizalde eta Marina Lledo. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

16 DOMEKA

09:00 Mendi irteera, familiarian. Morkaikok eta herriko ikastetxeek antolatuta, Olatz ingurura egingo dute irteera. Mintxetan batuko dira.

10:00 Zuhaitz Eguna, Mendaron. Intxusadiko Goikolan.

17:00 'Irabazi arte' telesailaren estreinaldia, Mendaron. Udaletxeko sarreran.

17 ASTELEHENA

17:30 Hausnarketa, herriko aisialdi hezitzailea berpizteko. Mendaron, udaletxeko Arno aretoan.

19 EGUAZTENA

18:00 Literatura sorkuntza tailerra, Jasone Osororekin. Haizeak antolatuta, emakumeentzako saioa. Doan eta gaztelaniaz. Lilan.

20 EGUENA

09:00 Irteera osasungarria. Jubilatuen Biltokiak antolatuta.

21 BARIKUA

18:30 7. arteari buruzko kafe tertulia, Loredi Salegirekin. Haizeak antolatuta, Lilan.

19:00 Antzerkia: 'Ni ta nitarrak'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.



elgoibar ikastola

Elgoibar Ikastolan izena eman duzuen familia guztiei

ESKERRIK ASKO ETA ONGI ETORRI!

ikastola

elgoibar@elgoibarikastola.eus **944 74 44 41** **elgoibarikastola.eus**

salto-saltoka
KIDETZAN ZUZEN LERNOIA

Zinea Herriko Antzokian



'Babygirl'

15 zapatua: 19:00 / 22:15
 16 domeka: 19:00
 17 astelehena: 21:00



'Salve Maria'
 (Ongarri zinekluba)

19 eguaztena: 21:00

2025eko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

OTSAILA

- 14 BARIKUA ■ Soto
- 15 ZAPATUA Garitaonandia
- 16 DOMEKA Gartaonandia
- 17 ASTELEHENA Arriola
- 18 MARTITZENA ■ Fernandez
- 19 EGUAZTENA Yudego
- 20 EGUENA ■ Oruesagasti
- 21 BARIKUA Barrenetxea

2025 urte guztian, gauzez:
 Mikel Lekunberri Alberdi. Isasi, 31 (Eibar)
 943 204 230

- Fernandez: Herriko Enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142
- Soto: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638
- Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384

MADU, igarle sendatzailea
 Bikote harremanak onbideratzen espezialista.
 Begizkoa kentzen dut.
 Sexu-ezintasuna sendatzen dut.
 Zorte ona erakartzen dut negozio berrietarako;
 bideak zabaltzen ditut.
 Emaitza onak %100ean ziurtatuta.
 Harremanetarako: 647 449 544





MEKANOSA
 Errosario, 27-Elgoibar
 943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

Jon Aranoa
 Guillermo Torres



Elgoibar
 Albaitaritzeta

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astelehenetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Itsepaindegi zerbitzua daukagu.
 Deitu ordua hartzeko.



PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
 943 740 570 / 636 986 162



Kontxi Gabilondok lagatakoak dira aste honetako bi erretratuak. Arraten ateratakoak dira bi argazkiak, Mariaren Alaben topaketa batean. Ikusten den bezala, emakume pila bat batzen ziren, eta tartean Elgoibarkoak ere bai. Ana Garate eta Rosario Garate ziren horietako bi. Goiko argazkian 20 bat urte zituen Anak, eta Rosariok 16.

1.935




1.941





Maria Alberdi Arzuaga

2025eko otsailaren 5ean hil zen, 96 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Pakita Ansuategi Maguregi

2024ko otsailaren 14an hil zen, 94 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
otsailaren 16an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren
eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.



I. URTEURRENA

Antonio Etxabe Juaristi

2024ko otsailaren 12an hil zen, 83 urte zituela. Haren oroimenez
I. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 16an,
11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Eskerrik asko eman diguzun
maitasunagatik
eta poztasunagatik.
Askok maite zaitugu.***

Etxekoak



VI. URTEURRENA

Arantza Berasaluze San Martin

2019ko otsailaren 8an hil zen, 59 urte zituela.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barrean
eramango zaitugu betiko.***

Senideak eta lagunak



G R E M I O N E N GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODRI
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC aroztegia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Ateak, leihoak, pertsianak, barandilak,
eltxo-sareak eta toloak jarzen ditugu.

662 234 609

odrileihoak@gmail.com
Sagor Erika Kalea 2, 20690 SOBALLEZE

AROZTEGIA

BIENA, S.L.
AROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA

Pedro Mijel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasasa.com
www.pagoagasasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasasa.com
943 740 279

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutuz-gain industrialdea, 9
20850 Mendaro

943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSOKONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsianak
- ✓ Arozzeria metalikoa
- ✓ PVC arozzeria
- ✓ Eltxo-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978

carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan agertzearen onurak!

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilean

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak eta irudia erakutsiko ditugu **BARREN** astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron erakusleihen ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu Elgoibarren eta Mendaron **DOAN**.

Eman bultzada eskarari eta lagundu gure proiektua finantzatzen.